

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

3

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****FORU ADMINISTRAZIOKO ETA FUNTZIO
PUBLIKOKO DEPARTAMENTUA**

2014ko azaroaren 4ko Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiko borondatezko ordezkarien errolda korporatiboa arautzen duena.

Departamentuko foru diputatuak, honako agindu hau eman du 2014ko azaroaren 4an:

2014ko urriaren 14ko 32/2014 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua aldatzen duenak, txertatu eta moldatu egin zuen harreman elektronikoa nortasuna eta ordezkari-tza egiaztatze-ari buruzko arauketa; hain zuzen ere, 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkari-tza egiaztatze-koak, jasotako arauketa; izan ere, hori indargabetu egin baita.

Ordezkatzeko moduei dagokionez, 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuaren 23. artikulua idazkera berrian aldatu egin da bitarteko elektronikoa erabiliz beste pertsona edo entitate baten ordezkari-tza jarduteko inskribatuta egotea eskatzen duten ordezkari-erolden egitura.

Legezko ordezkari-tzari dagokionez, mantendu egingo da Ogasun eta Finantza Departamentuari atxikitako legezko ordezkari-errola.

Borondatezko ordezkari-tzari dagokionez, borondatezko ordezkari-errola korporatiboa sortu da, Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoko Departamentuari atxikia. Errola horretan inskribatuta dagoen ordezkari-tza duen pertsonaren izenean jardun ahal izango du Foru Administrazio guztian, hautatutako gaiaren arabera.

Halaber, aurrerantzean ere departamentu bakoitzak ahalmena izango du borondatezko ordezkari-errola propioa sortzeko, bere eskumen eskusiboko eremu eta gaietarako.

23/2010 Foru Dekretuaren aipatutako 23. artikulua 3.a) eta 5. apartatuetan xedatutakoaren arabera, borondatezko ordezkari-errola korporatiboa buruzko arauketa espezifiko atxikita dagoen departamentuko foru diputatuaren foru aginduz ezarriko da. Foru agindu horretan zehaztuko dira eroldan inskribatzeko baldintzak eta prozedura; inskribatu nahi den ordezkari-tza egiaztatze-ko modua; ordezkari-tza horrek zein izapide eta jarduketarako balioko duen; inskribatutako ordezkari-tzaren indarraldia, aldaketa, baja eta ezeztatzea; eta eroldaren funtzionamendurako zehaztu behar diren gainerakoak.

Horrela bada, Gipuzkoako lurralde historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 6/2005 Foru Arauak, zetaillaren 12koak, 40.1.d) artikuluan emandako eginkizunen jardunean,

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN FORAL Y
FUNCIÓN PÚBLICA**

Orden Foral de 4 de noviembre de 2014, por la que se regula el censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La diputada foral del Departamento, con fecha 4 de noviembre de 2014, ha dictado la siguiente Orden:

El Decreto Foral 32/2014, de 14 de octubre, de modificación del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, ha incorporado y adaptado la regulación de la acreditación de la identidad y la representación en las relaciones electrónicas, que se recogía en el Decreto Foral 40/2006, de 12 de septiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral, que ha sido derogado.

En lo que se refiere a las formas de representación, la nueva redacción del artículo 23 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, modifica la estructura de los censos de representación en los que será necesaria la inscripción para actuar por medios electrónicos en representación de otra persona o entidad.

Por lo que respecta a la representación legal, se mantiene la existencia de un censo de representación legal adscrito al Departamento de Hacienda y Finanzas.

En cuanto a la representación voluntaria, se crea un censo corporativo de representación voluntaria, adscrito al Departamento Administración Foral y Función Pública. La inscripción en este censo habilita a la persona inscrita a actuar en nombre de su representada, en función de la materia elegida, ante toda la Administración Foral.

Asimismo, se mantiene la posibilidad de que cada departamento habilite su propio censo de representación voluntaria para ámbitos o materias propias de su exclusiva competencia.

De conformidad con lo dispuesto por los apartados 3.a) y 5 del artículo 23 del Decreto Foral 23/2010, la regulación específica del censo corporativo de representación voluntaria se hará mediante orden foral de la diputada foral del Departamento al que está adscrito, que especificará los requisitos y el procedimiento de inscripción en el censo, las formas de acreditación de la representación objeto de inscripción, trámites y actuaciones electrónicas para los que sea válida, vigencia, modificación, baja y revocación de la representación inscrita, y cuantos otros extremos requiera el funcionamiento del censo.

En su virtud, en el ejercicio de las funciones atribuidas por el artículo 40.1.d) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

XEDATU DUT

1. artikulua. Xedea.

Foru agindu honen xedea da Foru Administrazioaren eremu bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen 23/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, 23.3.a) artikuluan xedatutakoaren indarrez sortutako Gipuzkoako Foru Aldundiko borondatezko ordezkarien errolda korporatiboaren funtzionamendua arautzea.

2. artikulua. Helburua eta ondorioak.

1. Borondatezko ordezkarien errolda korporatiboan inskribatzeak duen helburua da pertsona fisiko eta juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen ordezkariak egiaztatzea hirugarren pertsonen izenean bitarteko elektronikoen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean jarduteko, hautatutako gaiaren arabera.

2. Errolda horretan borondatezko ordezkariak bakarrik inskribatuko dira, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazioaren Jardunbidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 32. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Beraz, legezko ordezkariak ez dira errolda horretan inskribatuko.

3. Erroldan inskribatzen den ordezkariak 3. artikuluan jasotako gaiei buruz gauzatzen diren, eta berariaz baimenduak izan diren, izapide eta jardueretarako bakarrik izango du eragina.

4. Borondatezko ordezkarien errolda korporatiboan inskribatutako ordezkariak ez du bere ordezkariak ahalordea zertan frogatu beharko Foru Administrazioaren aurrean ordezkatuaren izenean jarduten duen bakoitzean, bai bitarteko elektronikoko erabiliz bai aurrez aurre, betiere jardura hori inskribatutako ordezkariaren esparrukoa bada.

5. Ordezkatuari zein ordezkariari dagokie Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoko Departamentuari jakinaraztea erroldan inskribatutako ordezkariaren eraginkortasunean eta balioan eragin dezakeen edozein gorabehera.

3. artikulua. Ordezkaritzaren edukia eta indaraldia.

1. Inskribatutako ordezkariaren edukia honako gai hauek jasotako ahal izango da:

a) Fakturen kudeaketa: gai honetan ordezkariak jaso duenak ordezkariaren duen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren hornitzaile den pertsonari buruzko datuak aldatzeko eskatu ahal izango ditu, bai eta ordaintzeko aurkeztu zaizkion fakturen izapideak kontsultatu ere.

b) Diru-laguntzak eta laguntzak: gai honetan ordezkariak jaso duenak ahalmena izango du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko diru-laguntzen atarian jasotako diru-laguntzen eskaerak egiteko, errekurtsioak jartzeko, egintzetan atzera egiteko, eskubideei uko egiteko, datuak aldatzeko, hala nola espediente horiei buruzko jakinarazpenak jasotzeko, elektronikokoak barne.

2. Ordezkaritza epe mugagabeaz eman daiteke edo epe zehatzerako, ordezkariaren epemuga adierazita.

4. artikulua. Ordezkaritza erroldan inskribatzea.

1. Ordezkaritza inskribatzeko nahitaezkoa izango da, bai ordezkaria eta bai ordezkaria, Herritarren datuen foru erroldan alta emanda egotea; hain zuzen ere, 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuaren 21.5 artikuluan aurreikusita dagoen erroldan.

2. Ordezkaritzaren aurreinskripzioa ordezkariak egingo du, bitarteko elektronikoko erabilera, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoko dagoen aplikazio informatikotik.

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

La presente orden foral tiene por objeto la regulación del funcionamiento del censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa, creado por el artículo 23.3.a) del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

Artículo 2. Finalidad y efectos.

1. La inscripción en el censo corporativo de representación voluntaria tiene como finalidad acreditar la representación de las personas físicas y jurídicas y entes sin personalidad jurídica para actuar por medios electrónicos en nombre de terceras personas, en función de la materia elegida, ante la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Sólo se inscribirán en el censo las representaciones que se otorguen voluntariamente, de conformidad con lo dispuesto por el artículo 32 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Queda así excluida la inscripción de las representaciones legales.

3. La representación que se inscriba en el censo sólo surtirá efecto para los trámites y actuaciones que se realicen respecto de las materias recogidas en el artículo 3 que hayan sido expresamente autorizadas.

4. La inscripción en el censo corporativo de representación voluntaria exonera a la persona representante inscrita de acreditar su poder de representación cada vez que entable una relación electrónica o presencial con la Administración Foral en nombre de su representada, con el límite del alcance de la representación inscrita.

5. Corresponde a la persona representada o a la representante, indistintamente, comunicar al Departamento de Administración Foral y Función Pública cualquier incidencia que pueda afectar a la eficacia y validez de la representación inscrita en el censo.

Artículo 3. Contenido y vigencia de la representación.

1. Las materias sobre las que podrá ejercerse el contenido de la representación inscrita son las siguientes:

a) Gestión de facturas: la representación otorgada en esta materia habilita a la persona representante a solicitar la modificación de los datos de la persona representada proveedora de la Diputación Foral de Gipuzkoa y consultar la tramitación de las facturas presentadas para su pago.

b) Subvenciones y ayudas: la representación otorgada en esta materia habilita a la persona representante a formular solicitudes, entablar recursos, desistir de acciones, renunciar a derechos y modificar datos, así como recibir notificaciones, incluidas las electrónicas, de los expedientes de subvenciones alojados en el portal de subvenciones de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. La representación se podrá otorgar por tiempo indefinido o por un plazo concreto, indicando la fecha límite de la representación.

Artículo 4. Inscripción de la representación en el censo.

1. Para inscribir una representación es necesario que tanto la persona representante como la representada se encuentren dadas de alta en el Registro foral de datos ciudadanos, previsto en el artículo 21.5 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre.

2. La preinscripción de una representación será realizada por medios electrónicos por la persona representante desde la aplicación informática ubicada en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Ordezkariek egoitza elektronikoan onartutako sinaduren arteko sinadura elektroniko aurreratua erabiliko du identifikatzeko, bi aldeek identifikazio datuak sartu edo baliozkotuz, eta ordezkariak zein gaitan erabiliko den eta ordezkariaren indaraldia zehaztuko ditu.

3. Ordezkariek ordezkariak egiaztatze dokumentazioa aurkeztuko du, aplikazio informatikoaren bitartez, foru agindu honen 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Dokumentazio hori aurreinskripzioa egiteko unean edo gero aurkez daiteke.

4. Ordezkariek aurreinskripzioa sinatuko du, sinadura elektroniko aurreratuaren bitartez; bai eta bidezko dokumentazio erantsia ere, halakorik izanez gero.

5. Ordezkatuak ordezkariaren aurreinskripzioarekin adostasuna erakutsi behar du, foru agindu honen 5. artikuluan aipatutako moduren batean.

6. Prozesua, aurreinskripzioaren alta edo ezespren jakinarazpenarekin amaituko da.

a) Alta emango da, honako baldintzak betetzen badira:

– Ordezkariek ordezkariaren aurreinskripzioa behar bezala bete izatea.

– Beharrezko dokumentazioa aurkeztu eta Foru Administrazioak egiaztatu izatea.

– Ordezkatuak egiaztatu izatea ordezkariaren aurreinskripzioarekin ados dagoela.

b) Adierazitako baldintzak ez badira bete, aurreinskripzioa ukatu egingo da. Ukatzearen arrazoia posta elektronikoz jakinaraziko zaio ordezkariari, ordezkariaren alta emateko prozedurari berriro ekiteko aukera baldintzatu gabe.

5. artikulua. Ordezkatuak egiaztatzea ordezkariaren aurreinskripzioarekin ados dagoela.

1. Ordezkatuak hilabeteko epea du ordezkariak baliozkotzeko. Epe hori ordezkariaren aurreinskripzioa egiten den egunaren biharamunean hasiko da.

2. Ordezkatuak hauetako bitartekoren bat erabili behar du ordezkariaren aurreinskripzioarekin ados dagoela egiaztatzeko:

a) Bitarteko elektronikoak. Ordezkatuak Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan dagoen aplikazio informatikotik baliozkotuko du ordezkariaren aurreinskripzioa. Horretarako, sinadura elektroniko aurreratua erabiliko du, ordezkariak berak edo honen legezko ordezkariak, baldin eta honen izendapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkariaren erroldan ageri bada.

b) Dokumentu publikoan edo notarioak egiaztatutako sinadura daraman dokumentu pribatuan emandako ahalordea erabiliz.

– Notario-ahalordea. Ordezkatuak notario-ahalordearen bitartez izendatuko du ordezkaria. Notario-ahalorde horren edukia bat etorri behar du erroldan inskribatutako ordezkariaren edukia, gai eta indaraldiarekin.

– Sinadura egiaztatua. Erroldan ordezkariak aurreinskribatzeko inprimakia pertsona ordezkariak sinatu egin behar du, fede-emaile publiko baten aurrean.

c) Fisikoki bertaratzea. Ordezkatua, bera edo ordezkariaren bitartez, xede horretarako prestatua dagoen Foru Administrazioaren edozein bulegotara bertaratuko da. Hemen, identifikatu eta, halakorik badagokio, ahalordea behar bezala egiaztatutako ondoren, ordezkariak erroldan aurreinskribatutako ordezkariaren inprimakia sinatuko du.

La persona representante se identificará mediante firma electrónica avanzada de entre las admitidas en sede electrónica, introducirá o validará los datos de identificación de las partes y determinará las materias y la vigencia de la representación.

3. La persona representante aportará la documentación acreditativa de la representación a través de la aplicación informática, conforme a lo establecido en el artículo 6 de esta orden foral, en el momento de enviar la preinscripción o en un momento posterior.

4. La persona representante firmará la preinscripción y, en su caso, la documentación adjunta correspondiente, mediante firma electrónica avanzada.

5. La persona representada deberá prestar su conformidad con la preinscripción de la representación de alguna de las formas relacionadas en el artículo 5 de la presente orden foral.

6. El proceso finalizará con la comunicación de alta o de rechazo de la preinscripción.

a) El alta se dará cuando se cumplan las condiciones siguientes:

– Que la persona representante haya cumplimentado correctamente la preinscripción de la representación.

– Que la documentación necesaria haya sido aportada y validada por la Administración Foral.

– Que la persona representada haya acreditado su conformidad con la preinscripción de la representación.

b) La preinscripción será rechazada cuando no se cumplan las condiciones señaladas. El motivo de rechazo será comunicado a la persona representante por correo electrónico, sin perjuicio de que pueda volver a iniciar el procedimiento de alta de la representación.

Artículo 5. Acreditación de la conformidad de la persona representada con la preinscripción de la representación.

1. La persona representada dispone de un mes para validar la representación. El plazo se iniciará a partir del día siguiente a aquel en que se realice la preinscripción de la representación.

2. La persona representada deberá acreditar su conformidad con la preinscripción de la representación de alguna de las formas siguientes:

a) Por medios electrónicos. La persona representada validará la preinscripción de la representación desde la aplicación informática ubicada en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con firma electrónica avanzada, bien directamente o bien a través de su representante legal cuyo nombramiento figure en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Mediante poder otorgado en documento público o en documento privado con firma notarialmente legitimada.

– Poder notarial. La persona representada designará una persona representante mediante poder notarial. El contenido de ese poder notarial deberá ser acorde con el contenido, materias y vigencia de la representación preinscrita en el censo.

– Firma legitimada. El documento impreso de la preinscripción de la representación en el censo será firmado por la persona representada en presencia de fedatario/a público/a.

c) Personación física. La persona representada comparecerá personalmente o a través de su representante en cualquier oficina de la Administración Foral habilitada al efecto, donde, previa identificación y acreditación, en su caso, de la suficiencia de los poderes, firmará el documento impreso de la representación preinscrita en el censo por la representante.

d) Triangulazioa. Ordezkatuaren adostasuna triangulazio sistemaren bidez egiaztatu ahal izango da. Honela funtzionatzen du:

– Ordezkariek aurreinskribatutako ordezkaritzaren inprimakia aurkeztuko du, ordezkatuak eskuz sinatua, xede horretarako prestatua dagoen Foru Administrazioaren edozein bulegotan.

– Foru Administrazioak, behin dokumentazioa egiaztatuta, ordezkatuari jakinaraziko dizkio, ordezkaritzaren aurreinskripzioaren kopia eta pasahitza. Jakinarazpen hori, Herritarren datuen foru erroldan jakinarazpenak egiteko ageri den posta helbidean egingo zaio ordezkatuari.

– Ordezkatua ados badago aurreinskribatutako ordezkaritzarekin, pasahitza emango dio bere ordezkaritari.

– Ordezkaritza hori, ordezkariek pasahitza Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoa dagoen aplikazio informatikoan sartzen duen unean alta emango da.

3. Ordezkaritzaren aurreinskripzioa erroldan aurkezten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean ordezkatutako pertsonaren adostasunik ez badago, ordezkaritza hori baztertu egingo da eta inskripzioa egiteko prozedura berriro hasi beharko da.

6. artikulua. Dokumentazioa aurkeztea.

Ordezkariek, sinadura elektronikoa aurreratua erabilita aplikazio informatikoaren bitartez, honako dokumentazio honen kopia digitalizatua erantsiko dio espedienteari:

a) Ordezkatuaren adostasuna 5.2.b.) artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatu bada, ordezkatua ordezkaritzaren aurreinskripzioarekin ados dagoela egiaztatzen duen dokumentu publikoaren edo notarioak egiaztatutako sinadura darman dokumentu pribatuaren kopia digitalizatua.

b) Adostasuna hirugarren pertsona batek eman badu ordezkatuaren izenean eta ordez, ordezkaritza izateko ahalmenaren kopia digitalizatua.

Aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren erantzulea ordezkaritza izango da.

7. artikulua. Inskribatutako ordezkaritza aldatzea eta baja ematea.

1. Erroldan egindako inskripzioan edozein aldaketa egiteko, foru agindu honetan alta emateko aurreikusitako prozedura bera jarraituko da.

2. Honako kasu hauetan emango zaio baja inskribatutako ordezkaritzari:

a) Ordezkatuak, edozein unetan, ordezkaritza ezeztatzen duenean.

b) Ordezkariek, edozein unetan, ordezkaritzari uko egiten dionean.

c) Alta eman zenetik hasi eta hiru urteko epean ordezkaritza erabili ez denean.

d) Foru agindu honetako 8.2 artikuluan aipatzen den ofiziozko baja ematen denean.

3. a) eta b) apartatuetan aipatutako bajak ordezkaritari jakinaraziko zaizkio, ordezkatuari ere berorren berri emanda, eta aipatutako bajak aurkezte-egunaren biharamunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

4. c) eta d) apartatuetan aipatutako bajak ordezkaritari eta ordezkatuari jakinaraziko zaizkio, eta aipatutako bajak bajaren ebazpena jakinarazten den une beretik aurrera izango dituzte ondorioak.

d) Triangulación. Se podrá acreditar la conformidad de la persona representada mediante el sistema de triangulación que tiene el siguiente funcionamiento:

– La persona representante presentará en cualquier oficina de la Administración Foral habilitada al efecto el documento impreso de la representación preinscrita firmado manuscritamente por la persona representada.

– Una vez verificada la documentación, la Administración Foral notificará a la representada, copia de la preinscripción de la representación junto con un código de referencia. La notificación se realizará a la dirección postal de la persona representada que figure a efectos de notificaciones en el Registro foral de datos ciudadanos.

– En caso de conformidad con la preinscripción de la representación, la representada comunicará el código de referencia a su representante.

– La representación se dará de alta cuando la representante introduzca el código de referencia en la aplicación informática a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. En caso de que no conste la conformidad de la persona representada en el plazo de un mes desde el día siguiente a la presentación de la preinscripción de la representación, ésta se rechazará y será necesario iniciar de nuevo el procedimiento de inscripción.

Artículo 6. Presentación de documentación.

La persona representante, utilizando la firma electrónica avanzada a través de la aplicación informática, aportará al expediente copia digitalizada de la siguiente documentación:

a) En caso de que la conformidad de la persona representada se acredite según lo dispuesto por el artículo 5.2.b), copia digitalizada del documento público o del documento privado con firma notarialmente legitimada, que acredite la conformidad de la persona representada con la preinscripción de la representación.

b) En caso de que una tercera persona otorgue la conformidad en nombre y por cuenta de la representada, copia digitalizada de la capacidad de representación.

La persona representante responde de la veracidad de la documentación presentada.

Artículo 7. Modificación y baja de la representación inscrita.

1. Cualquier modificación de la inscripción en el censo seguirá el mismo procedimiento previsto para el alta en la presente orden foral.

2. Se producirá la baja de la representación inscrita en los siguientes supuestos:

a) Revocación manifestada por la persona representada en cualquier momento.

b) Renuncia presentada por la persona representante en cualquier momento.

c) No utilizar la representación en el plazo de tres años desde la fecha de alta.

d) Baja de oficio a la que se refiere el artículo 8.2 de la presente orden foral.

3. Las bajas recogidas de los apartados a) y b) se notificarán a la representante, dando cuenta a la representada, y tendrán efectos a partir del día siguiente al de su presentación.

4. Las bajas recogidas en los apartados c) y d) se notificarán a la representante y a la representada, y tendrán efectos desde la notificación de la resolución de baja.

8. artikulua. Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuaren ahalmenak.

1. Modernizazioko eta Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusiak ordezkartzen berriazko egiaztapena eska dezake, indarrean eta eguneratuak daudela bermatzearen.

Hori horrela, egoki irizten dion maiztasunaz ordezkatuaren adostasuna berritzea edo bidezko dokumentazio frogatzailea berriro aurkeztea exijitu ahal izango du.

2. Modernizazioko eta Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusiak erregistratutako ordezkartzak kautelaz eten edo baja eman ahal izango ditu inskripzioan akatsak antzematen ditueanean, dokumentazio frogatzaileen indarraldiari edo baliozkotasunari buruz zalantza sendoak daudenean, edota inskribatutako ordezkartzen ez-eraginkortasuna dakarten bestelako arazoak daudenean.

3. Inskribatutako ordezkartzak ofizioz baja eman edo eteteke, ebazpen arrazoitua eman beharko da.

9. artikulua. Izaera pertsonaleko datuak babestea.

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, 6. artikuluan ezarritakoa betez, ordezkaria edo ordezkaria pertsona fisikoa bada, bere adostasuna erakutsi beharko du borondatezko ordezkariaren errolda korporatiboak modu egokian funtzionatzeko beharrezkoak diren bere datuei tratamendu automatizatua emateari dagokionez. Adostasun hori ez da ordezkartza bakoitzean berritu beharko; eta 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan datuak ikusteko, zuzentzeko eta deusezteko ezarritako eskubideak erabiltzeko aukera emango du.

10. artikulua. Datuak babesteko fitxategia.

1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak 20. artikuluan ezarritakoari jarraituz, «Borondatezko ordezkariaren errolda korporatiboa» sortu da, Modernizazioko eta Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusiaren titularitzapean. Fitxategi horren edukia Agindu honen eranskinean ageri da.

Xedapen gehigarria. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko borondatezko ordezkariaren errolda arautzen duen 2010eko abenduaren 3ko 1.034/2010 Foru Aginduaren babesean inskribatutako ordezkartzen zergez bestelako edukia.

Ogasun eta Finantza Departamentuko borondatezko ordezkariaren erroldan aurreikusitako ahalmena, «ordezkartutako pertsonaren - Gipuzkoako Foru Aldundiaren hornitzailearen datuak aldatzea eskatzeko, eta ordaintzeko aurkeztutako hornidura, obra eta zerbitzuen fakturen tramitazioa kontsultatzeko» borondatezko ordezkariaren errolda korporatibora pasatzen da, «Fakturen kudeaketa» izeneko gaira zehazki.

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau 2014ko azaroaren 11n jarriko da indarrean.

Hau guztia denen jakinarenean gainean jartzen da.

Donostia, 2014ko azaroaren 4a.—María Yeregui, Departamentuko idazkari teknikoa. (10077)

ERANSKINA

BORONDATEZKO ORDEZKARIEN ERROLDA KORPORATIBOA

a) Fitxategiaren helburua:

Borondatezko ordezkartzen datuak kudeatzea eta kontrolatzea, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak 23.3.a) artikuluan aurreikusten dituenak.

Artículo 8. Facultades del Departamento de Administración Foral y Función Pública.

1. La Dirección General de Modernización y Servicios podrá solicitar la ratificación expresa de las representaciones realizadas a fin de asegurar que están vigentes y actualizadas.

A tal efecto, podrá exigir, con la periodicidad que se estime oportuno, la renovación de la conformidad de la representada o la aportación de documentación acreditativa actualizada.

2. La Dirección General de Modernización y Servicios podrá suspender cautelarmente o realizar las bajas de representaciones registradas en los supuestos de errores en la inscripción, existencia de dudas fundadas sobre la vigencia o validez de los documentos acreditativos, o concurrencia de otras causas que determinen la ineficacia de la representación inscrita.

3. La baja de oficio o suspensión de representaciones inscritas requerirá resolución motivada.

Artículo 9. Protección de datos de carácter personal.

Con la finalidad de dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 6 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, cuando el representante o el representado fueran persona física, deberá constar su consentimiento al tratamiento automatizado de sus datos que resulte necesario para el adecuado funcionamiento del censo corporativo de representación voluntaria. Este consentimiento, que no será necesario reiterar para cada representación, dejará a salvo el ejercicio de los derechos de acceso, rectificación y cancelación establecidos en la citada Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

Artículo 10. Fichero de protección de datos.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 20 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, se crea el fichero de datos personales denominado «Censo corporativo de representación voluntaria», cuya titularidad corresponde a la Dirección General de Modernización y Servicios. El contenido del fichero se recoge en el anexo de la presente Orden.

Disposición adicional. Contenido no tributario en las representaciones inscritas al amparo de la Orden Foral 1.034/2010, de 3 de diciembre, por la que se regula el censo de representación voluntaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La facultad prevista en el censo de representación voluntaria del Departamento de Hacienda y Finanzas para «solicitar la modificación de los datos de la persona representada-proveedora de la Diputación Foral de Gipuzkoa y consultar la tramitación de las facturas de suministros, obras y servicios presentadas para su pago» pasa al censo corporativo de representación voluntaria dentro de la materia denominada «Gestión de facturas».

Disposición final. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día 11 de noviembre de 2014.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 4 de noviembre de 2014.—La secretaria técnica del Departamento, María Yeregui. (10077)

ANEXO

CENSO CORPORATIVO DE REPRESENTACIÓN VOLUNTARIA

a) Finalidad del fichero:

Gestión y control de los datos de las representaciones voluntarias previstas en el artículo 23.3.a) del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

b) Erabilerak:

Borondatezko ordezkarien errolda korporatiboan aurreikusitako bitarteko elektronikoak erabiliz egin daitezkeen izapide eta jardueretan ordezkartzaren egiaztapena egitea.

c) Datuak ematera behartutako pertsonak edo taldeak:

Borondatezko ordezkarien errolda korporatiboan izena eman nahi duten pertsona fisiko eta juridikoak, nortasunik gabeko entitateak, eta beraien ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren edozein Departamenturen aurrean ordezkartzat ezartzen dela egiaztatu ahal izateko.

d) Datuak jasotzeko prozedura:

Erroldan alta aurreinskripzioa, baja eta aldaketa, dela bide telematikoz, dela paperezko eskuorriaren bitartez edo dela ezar daitezkeen bestelako edozein bideren bitartez.

e) Fitxategiaren oinarriko egitura eta bertan sartutako datu pertsonal motak:

Ordezkaria eta ordezkaria identifikatzeko datuak (izen-abizenak eta IFK/AIZ), ordezkartzaren edukia eta mota, emandako ahalmenak baliatzeko forma eta epea eta, dagokionean, dokumentu publikoa eta erregistroko inskripzioa identifikatzeko datuak.

f) Aurreikusitako datu-jakinarazpenak:

Ez dira fitxategi honen datu-jakinarazpenak aurreikusten.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez dira aurreikusten.

h) Fitxategiaren arduraduna:

Modernizazioko eta Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusia.

i) Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta aurkaratzeko eskubideen erabilera:

Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentua, Idazkaritza Teknikoa, Gipuzkoa plaza z/g. 20004 Donostia.

j) Segurtasun maila:

Oinarrizkoa.

b) Usos previstos:

Comprobación de la representación en los trámites y actuaciones por medios electrónicos previstos en el censo corporativo de representación voluntaria.

c) Personas o colectivos obligados a suministrar datos:

Personas físicas y jurídicas, antes sin personalidad jurídica, y sus representantes, que pretendan inscribirse en el censo corporativo de representación voluntaria para hacer valer los efectos acreditativos de dicha inscripción ante cualquier Departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

d) Procedimiento de recogida de los datos:

Preinscripción de alta, baja y modificación en el censo, realizadas por vía telemática, impreso en papel u otros medios que se establezcan al efecto.

e) Estructura básica del fichero y descripción de los tipos de datos:

Datos identificativos de la persona representante y de la representada (nombre y apellidos y NIF/NIE), contenido y tipo de representación, forma y plazo de ejercicio de las facultades conferidas; y en su caso, datos identificativos del documento público y de inscripción registral.

f) Comunicaciones de datos previstas:

No se prevén cesiones de los datos contenidos en este fichero.

g) Transferencias internacionales de datos:

No previstas.

h) Responsable del fichero:

Dirección General de Modernización y Servicios.

i) Ejercicio de los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición:

Departamento de Administración Foral y Función Pública, Secretaría Técnica, Plaza Gipuzkoa s/n, 20004 San Sebastián.

j) Nivel de seguridad:

Básico.